

MARISOL GARMENDIA: "DONOSTIAK LIDERGO BERRIA, GERTUKOA ETA HIRI HANDINAHIA BEHAR DU"

Donostiako Alkatetzarako hautagai sozialistak maiatzaren 28ko udal hauteskundeetara aurkeztuko den zerrenda aurkeztu du. «Hautagaitza sozialista berritu bat da, hiria gidatzeko, lanbide, adin, auzo desberdinetako emakume eta gizon konprometituz osatua, Donostiako hiria bezain plural eta anitzak; harro Bilintxen espiritu liberala ordezkatzear, moderatua eta kosmopolita, Donostiako hiriaren ezaugarri izan dena», adierazi du PSE-EEko hautagaiak.

Zuloaga Plazan egindako ekitaldi batean, hauteskunde-zerrenda ixten duen Jesús Eguigurenek aurkeztuta, Marisol Garmendiak adierazi du laster Donostiak lehen emakumezko alkatea izango duela, eta gaineratu du gure proposamen sozialista Donostiarako garai berri bat eraikitzea dela. Aldaketa-garai lasaia, lidergo berria, hurbila eta entzuten dakiena.

Donostiako sozialistok pasioz eta hiri-ambizioz gidatu nahi dugu Donostia berriro, eta, batez ere, donostiarrekiko gertutasunez, enpatiaz, apaltasunez eta errespetuz. Zentzuz eta pertsoneri entzunda, hiriaren erronkei aurre egiteko modurik onena dela adierazi du.

Donostiako Udalerako zerrenda sozialistako lehen hamabi kideek babestuta, hautagaiak adierazi du ez duela arazorik sortu nahi ez dagoen tokian, baina ezta alfonbraren azpian ezkutatu ere. Donostiaren ilusioa eta lidergoa berreskuratzeko garai baten protagonista izan nahi dut, erronkei erabakitasunez, ideiaz eta gaitasunez aurre egingo dien lidergo baten protagonista; berrikuntza, etorkizuna eta itxaropena lortzeko etapa bat irekiko duena.

Garmendiak hiria gaztetzearen eta gazteei erabakitzeko eskubide nagusia eskaintzearen alde egin du: Donostian bizitzen geratzea, enplegua eta etxebizitza alokairuan prezio eskuragarrietan aurkitzea. Gazterik gabe Donostiak ez du aurrera egingo.

Marisol Garmendia

Eta hori, adineko pertsonak ahaztu gabe, behar bezala artatu eta aktibo sentitu behar direnak, hiriaren garapen ekonomikoan laguntzeko mundu osotik etorritako donostiarrak behar dituen hiri batean integratuta.

Alkategaiak aipamen berezia egin die emakumeei. "Emakumeok asko dugu erabakitzeke eta ekarpenak egiteko proposatzen dudan lidergo berri honetan. Donostiarren % 53 gara, eta borrokan jarraitu behar dugu eskubide eta aukeren alde, berdintasunaren alde, kristalezko sabaiak apurtzearen alde, indarkeria matxista desagerraraztearen alde, eta hori lortzeko, denekin kontatu behar dela", adierazi du.

Alde guztiak kontuan hartzea ez da trafikoan eta mugikortasunean egin dena. Horregatik, alkate naizenean, San Martin eta Urbieta bezalako eremuetan trafiko-aldaketak lehengoratuko ditut, eta entzute eta adostasun prozesu bat irekiko dut Mugikortasun Plan bat egiteko, zentzutasunetik abiatuta.

Garmendiak ere Eusko Jaurlaritzarekin adostasunaren aldeko apustua egin du, alokairuko etxebizitza publikoen politika premiaz jorrazteko, batez ere gazteenentzat. Ez dezagun ahaztu beste akordio bat, Loiolako Kuartelen salmenta, Pedro Sanchezen gobernu sozialistaren eskutik etorri dela.

"Tinko sinesten dut nire hirian, Donostian eta Donostiako herritarrengan sinesten dut. Aro berri baten buru izango gara, Donostia gehiago, herritarren konplizitate gehiago, herritarren energia eta harrotasun gehiago, ez hain grisa, ez hain apatikoa eta ez hain itxia identitate bakarretan eta aurreiritzi nazionalistetan. Aukera bakarra lidergo berria baten alde edo lidergo ezagun eta agortu baten aurrean."

www.marisolgarmendia.eus

